




“Jatekoa geuk egin beharko dugu” Aitor Galdos

Nola sortu zen Italiara joateko aukera hau?

Bruno Lealik Igorrekin izandako emaitza onak bul-tzatuta, inguru honetatik beste txirrindulari batzuk ere probatzea nahi zuela esan zuen eta, Anton Ormaetxearekin jarri zen kontaktuan eta ondoren nirekin.

Zein izan zen zure aurreneko erantzuna?

Ez nion ezetzik esan baina hain gazte izanik, banuen nere kezka ere. Baque taldeko Sabino Angoitia-ekin hitzegi nuen, sendiaren eta baita Igorrekin ere eta azkenean animatu naiz.

Talde afizionatua izango da...

Bai, hala da. Igorrek ere hemen eman zituen Italia aldean lehenengo pausoak. Italiako txirrindularitzari buruz izango duzu berririk...

Igorrek esandakoa gehiena. Lasterketak gogor xamarrak direla, ibilbideak hemengoan antzekoak direla...

Zenbateko iraupena du kontratuak?

Hasiera batean urte betetako sinatu dut.

Noiz zoazte?

Urtarrilaren 15ean.

Pisu batera...

Bai. Koldo, ni eta taldeko beste txirrindulari batzuk pisu berean egongo gara. Geuk egin beharko ditugu ere, sukaldeko lanak.

Espertentziarik alor honetan?

Dexente. Etxean nagoen-an ere sarritan neuk prestatu izan dut neretzako jana.



Beste bi txirrindulari Italia aldera

Duela pare bat urte Ermuko Igor Astarloa txirrindulariak egin bezala, gure herrietako beste bi gaztek, Italia aldera joatea erabaki berri dute. Aitor Galdosek, 20 urte besterik ez ditu eta Baque taldean 3 urte afizionatuetan egin ostean, itxaropenez ekin

dio erronka berri honi. Koldo Pradera, Mallabitarra, oso pilotazale izan den sendiko mutila, Ba-naka taldean aritu da duela gutxi arte, Fede Etxabe-ren aginduetara. Berak ere ez du aukera honi aurre egiteko beldurrik.

“Ilusio handiz goaz italiara” Koldo Pradera

Zer esan zizun Fede Etxabe-k?

Hasiera batean ez zitzaion larregi gustatu nere erabakia, sorpresa itzela hartu zuen baina ondoren aukera ondo aprobetxatzeko esan zidan.

Eta sendiak?

Aita... ba pozik. Nik nere buruari buelta asko eman nizkion, zalantza eta ikara pixkat ere banuen. Ama ere kezkatuta ikusi nuen.

Italiako pasta gustatuko ote zaizu?

Bai. Hemen ere edozein eraketa pasta jaten dut.

Pena da hemen zuentzat aukerarik ez izatea ere..

Hala da. Ea Italia aldean zeozer

egin eta berriz ere etxeko talderen batek gugan jartzen dituen begiak.

Txirrindularitzaz gain pilotazalea ei zara..

Nere sendian betidanik izan da pilotarako zaletasuna, aita, anaia ni neu ere ibili nintzen pelotan aldi batez.

Txirrindularitza uztea ere pentsatuko zenuen noizbait?

Sarritan. Hala ere, handik gutxira ezin zara bizikletara igo gabe egon.

Harrobirik bada Mallabian?


Badabiltza zenbait gazte baina ez dago duela zenbait urte egon zen hainako taldea.

Ea Gorka Arrizabalaga, Mi-kel Pradera profesional eta ni Italiara joan izanak berrendartzen duten.

Besterik?

Ilusio haundiz goazela Italiara eta ea dena ondo ateratzen den.

Asier Ibaibarriaga



**BAR
GERALEKU**

Bost'erdietatik zabalik.

San Inazio, 5. • ☎ 17 00 32

BANAKETAK
Arreal, 97s

BANATZAILEA:

- LUIS CAÑAS Bodegak - LOS CURROS Bodegak - JAUME SERRA Cavak eta Ardoak
- ITURRI Kontserbak - ILLUMBE Sagardo Naturala
- BASARANA Patxarana- RAIMAT - CODORNIU Bodegak Cavak
- LAUREN,S & DANNY garbiketa produktuak

Goitondo Goikoa Poligonoa, 3
Telefona (943) 17 60 75
48269 MALLABIA (Bizkaia)

171 Posta Kutxa - 48260 ERMUA (Bizkaia)